

## **SOPELAKO UDALAK FIDANTZARI BURUZKO AZALPENAK EMAN DIZKIO TXOSNA BATZORDEARI**

Atzo, irailak 12 osteguna, Sopelako Udalak eta Txosna Batzordeak bilera egin zuten arratsaldeko 18:00etan. Bertan, bilera hori aurretik egin behar zela aitortu zieten Gobernu taldeko kideek batzordeko kideei. Ondoren, Larrabasterrako jaietan jarritako fidantza atxikitzeak arrazoia azaldu zuen Udalak:

Jaietako Ordenantza bat dago, besteak beste, musikaren ordutegia zehazten duena, festaren eta herriko bizilagunen arteko elkarbizitza arautzeko. Txosten tekniko batek zehazten badu ordenantza urratu dela, adibidez, musikaren ordutegia ez errespetatzeagatik, Udalak ezarrita dauden neurriak aplikatu behar ditu. Inplikaturik dagoen taldeak helegitea jartzeko aukera du. Gainera, Udalak inplikaturik dagoen informazio guztia eman behar du. Udal Gobernuak kideek Txosna Batzordeari helarazi diote, gardentasunez eta zintzotasunez, betebeharrak hori beteko duela, zalantzarik gabe.

Sopelako Udalak badaki fidantza atxikitzea garrantzi handiko neurria dela Txosna Batzordearentzat. Hala ere, txosten tekniko bat baldin badago, udala behartuta dago prozedurarekin jarraitzera. Udal gobernua ezin du prozeduran eragin, prozesu guztia araututa dagoelako. Kontrakoa egitea prebarikazio delitua egitea litzateke.

Udal Gobernuak argi utzi nahi du herri mugimenduekin lankidetzan jarraituko duela, orain arte egin duen bezala. Udal Gobernuak herria egiteko tresnatzat jotzen du udala. Txosna Batzordearen lana eskertzen du, gainera, Sopelan jaiak herrikoiak, parekideak eta parte hartzaileak izan daitezela egiten duen lanagatik. Gertatutakoa ez da herri mugimenduen aurkako eraso, Jaietako Ordenantza ez betetzearen balizko ondorioa baizik.

Udalak ondorio batzuk atera ditu. Batetik, Jaietako Ordenantzaren berrikuspena baloratzeko beharra, Txosna Batzordearen ekarpenak ez ezik, Sopelako bizilagunenak ere kontuan hartuta. Era berean, Udalak konpromisoa hartu du Txosna Batzordearekin komunikazioa estutzeko, atzoko bileraren kasuan bezala, bien arteko harremana modu eraginkorragoan eta arinagoan gerta dadin.